

# Basque Culinary Centerrek Turismo Gastronomikoko lehen masterra abiaraziko du

2016/04/05

- Basque Culinary Center eta MONDRAGON UNIBERTSITATEAren titulua da. Turismo gastronomikoan espezializatutako profesionalak trebatzeko asmoa duena, Eusko Jaurlaritzaren Babesarekin.
- Turismo Gastronomikoko lehen master horrek ikasleak trebatu nahi ditu, enpresa eta helmuga turistikoaren lehiakortasuna hobetzeaz gain, produktu eta esperientzia gastronomikoak sortu eta kudeatzeko.
- Turismo gastronomikoaren inguruan eraturako Basque Culinary Centerren lehen titulu propioa da, eta turismoari eta ekonomiari lotutako titulazioetako diplomadun eta lizentziadunei ez ezik, sektoreko profesionaleri ere zuzenduta dago.
- Masterra urrian hasi eta 2017ko martxora arte iraungo du.

Basque Culinary Center berriro ere aitzindaria izango da gastronomia- alorreko trebakuntzan. Zehazki, Turismo Gastronomiako lehen masterra jarriko du abian aurtengo urrian bertan. Basque Culinary Centerrek sektore horri lotuta emango duen lehen titulua da, eta trebakuntzako, espezializazioko, ikerketako eta berrikuntzako proiektu parerik gabekoa izango da gastronomia-, ostalaritza- eta elikadura-alorraren garapenera bideratuta, nazioarteko bokazio argiarekin.

Masterrak Eusko Jaurlaritzaren Babesa jaso du eta, bertan, ikasleek enpresa eta helmuga turistikoaren lehiakortasuna hobetzeko behar diren ezagutza, trebezia eta baliabideak eskuratuko dituzte. Halatan, aditu bihurtuko dira turismo gastronomikoaren alorreko helmugak eta enpresak planifikatu eta kudeatzen, eta ikuspegi kultural eta multidimentsionaltik ulertuko dute gastronomia. Orobat, produktu eta esperientzia enogastronomiko sortzaile eta berritzaileak diseinatzeaz gain, alor horretako turismoaren berezitasunak eta bertan parte hartzen duten eragileen eginkizuna ulertuko dituzte; instituzioetatik hasi eta balio-katean parte hartzen duten enpresa-sektoreetaraino.

Azkenik, turismo gastronomikoari lotutako planak eta "marketina" diseinatu eta ezartzen ikasiko dute, merkatuen ikerketan, ezagutzan eta segmentazioan oinarrituta, etengabe goraka doan turismo-eskaria erakarri eta asebetetzeko estrategiak eta jarduerak prestatuz helmuga eta enpresa turistikoentzat.

Masterra unibertsitateko gradudunei, diplomadunei eta lizentziadunei zuzenduta dago, turismoari, ekonomiari, zuzendaritzari, enpresa-kudeaketari, geografiari, kazetaritzari, komunikazioari, gastronomiari eta abarrei lotutako titulazioak lehenetsita. Alabaina, masterrak baditu beste hartzaila potentzial asko: batez ere sektore turistikoko edo gastronomikoko profesionalak (instituzio eta organismoetako turismo-teknikariak), turismo-alorreko enpresariak, produktu turistikoaren gerentek eta kontseilu arautzaileetako gerentek, besteak beste.

